




Etxebizitzaren Gida Plana Plan Director de Vivienda

Documento 4/4

2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren ekintza-plana

ETXEBIZITZAREN GIDA PLANA 2021-2023 ETA ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA 2021-2036



AURKIBIDEA

1.	XEDEA, IKUSPEGIA, BALIOAK ETA JARDUTEKO PRINTZIBIOAK	3
2.	2021 – 2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA PLANAREN NORTASUN-EZAUGARRIAK	4
3.	2021 – 2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA PLANAREN ARKITEKTURA: ARDATZAK ETA ESTRATEGIAK	5
	> 1. ARDATZA ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA EUSKADIN	6
	• 1. estrategia Babes publikoko etxebizitzaren parkea handitzea, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu eskusiboa eginez	7
	• 2. estrategia Etxebizitza eskuragarria bermatzera bideraturiko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea	11
	• 3. estrategia Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea	13
	> 2. ARDATZA BIZITEGI-ERAIKINEN PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK	15
	• 1. estrategia Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea	16
	• 2. estrategia Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea	19
	• 3. estrategia Eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea	21
	• 4. Estrategia BHSekin (birgaitzeko hirigintza-sozietateekin), udalekin eta etxebizitza publikoko sozietateak koordinatzea, herritarrei arreta hobea emateko eta birgaitze-agentearen figura sustatzeko	22
	> 3. ARDATZA GOBERNANTZA SISTEMAK eta KOORDINAZIO INSTITUZIONALA	24
	• 1. estrategia Gobernantza-sistema eta jarraipena	25
	• 2. estrategia Babes publikoko bizileku-sistema garatzeko zerga- eta finantzaketa-politika	26
	• 3. estrategia Koordinazio-sistemak etxebizitza-politiketan	27
4.	HELBURU KUANTITATIBOAK ETA AURREKONTUA	29
	4.1. Helburu kuantitatiboak	29
	4.2. Aurrekontu-magnitudeak	31
	4.2.1. Aurrekontu-kostuak	31
	4.2.2. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa	32



1.

XEDEA, IKUSPEGIA, BALIOAK ETA JARDUTEKO PRINTZIOIOAK

XEDEA

Etxebizitza duin eta egoki baten beharra duten pertsonen erantzun integrala bermatzea, eta, horretarako, alokairu eskuragarriak eta etxebizitza-parkearen bizigarritasun-eta jasangarritasun-baldintzak hobetzeko baliabide-eskaintza areagotzea.

IKUSPEGIA

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatuko duten prestazioen sistema ezarrita eta finkatuta edukitzea, alokairu eskuragarriak eta etxebizitza-parkearen hazkundera eta kohesio soziala erraztuz; horretaz gainera, etxebizitza-parke publiko eta pribatua birgaitzeko bidea bultzatzea, eta, horretarako, Europako Funtsak optimizatzea, birgaitze-politiken aldaketa estrategiko bat sustatuz –alegia, eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, birgaitze integrala, irisgarritasuna, energiaren efizientzia, inpaktu klimatikoa murriztea eta berrikuntza–.

Agertoki hori sendotzeko, ezinbesteko baldintza izango da politika jasangarri eta partekatua bermatzea, epe luzean irauteko bokazioarekin, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren bidez.

BALIOAK eta JARDUTEKO PRINTZIOIOAK

EGP 2021 – 2023 ETA ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA 2021-2036

PERTSONAK

- Pertsonak erreferente estrategiko gisa
- Alokairuaren kultura eta euskal gizartearen bizimodu berriak
- Aniztasuna eta tolerantzia
- Kohesio soziala
- Pobrezia energetikoaren aurka borrokatzea
- Behar adinako finantzaketa
- Fiskalitate progresiboa

PARKE ERAIKIA

- Birgaitzearen kultura
- Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna (energiaren efizientzia, ekonomia zirkularra eta karbono-aztarna)
- Irisgarritasun unibertsala eta bizigarritasuna (barnekoa + kanpoko)
- Industrializazioa eta digitalizazio sektoriala
- Enpleguaren kalitatea eta lanbide-kualifikazioa

GOBERNANTZA

- Etxebizitza babestuetan inbertitzea, herrialde-azpiegitura estrategiko gisa
- Zerbitzu publikoa eta lidergoa
- Sinplifikazioa eta administrazio-bizkortasuna
- Gardentasuna, parte-hartzea eta etengabeko ebaluazioa
- Lankidetzeta publiko-pribatua
- Genero-ikuspegia



2. 2021 – 2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA PLANAREN NORTASUN-EZAUGARRIAK

- 1** Ekimen publiko eta pribatuko **alokairu babestua sustatzearen aldeko apustua** indartzea, alokairu babestuko erregimenean eraikitzea sustatzeko, etxebizitza eskuratzeko eta alokairu eskuragarriko formula alternatibo berriak txertatuz. Datozen 15 urteetan etxebizitza babestuen parkea bikoiztea da helburua.
- 2** Jenderik **gabeko etxebizitzak mobilizatzeo programak** indartzea (Bizigune eta ASAP) alokairu eskuragarriantz bideratzeko, familia gehiago bizi ahal izan daitezen alokairu libreko etxebizitza batean, beren errentaren arabera merkatuko prezioen azpitik dauden zenbatekoak ordainduz, diru-sarreraren arabera.
- 3** Etxebizitzarako **eskubide subjektiboa aitortzeko** bidean aurrera egitea, eta, ildo horretan, geure gain hartzea Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren kudeaketa. Horrek esan nahi du, gainerako prestazioekin batera, hamarnaka mila pertsonak eta familiak izango dutela laguntza bat alokairua ordaindu ahal izateko.
- 4** Jauzi kuantitatibo eta kualitatibo bat lortzea **birgaitze-politikan**. Birgaitze integrala, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa biziki sustatuz, aurrekontua eta helburuak bikoiztuz aurreko planarekin alderatuta, eta eskabideen kudeaketa arinduz eta erraztuz. Eskabideen kudeaketa arinduz eta erraztuz. BHSen aldeko apustua egitea, dinamizatzaile gisa
- 5** Alokairu-eskaintza **handituko duen**, prezioen kontrola erraztuko duen eta birgaitze-kenkariak optimizatuko dituen **fiskalitatearen** aldeko apustua egitea.



3. 2021 – 2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA PLANAREN ARKITEKTURA: Ardatzak eta Estrategiak



ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA EUSKADIN

> Estrategia

- 1.1. Babes publikoko etxebizitza-parkea areagotzea
- 1.2. Etxebizitza eskuragarria bermatzera bideraturiko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea
- 1.3. Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea



BIZITEGI-ERAIKINEN PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK

> Estrategia

- 2.1. Eraikinen eta etxebizitzen parkea birgaitzea
- 2.2. Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea eraikuntzan eta birgaitzeetan
- 2.3. Eraikuntza-sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea
- 2.4. Birgaitzeko hirigintza-sozietateekin, udalekin eta etxebizitza sozietate publikoekin koordinaturik jardutea, herritarrei arreta hobea emateko eta birgaitze-agentearen figura sustatzeko




GOBERNANTZA SISTEMAK eta KOORDINAZIO INSTITUZIONALA

> Estrategia

- 3.1. Gobernantza- eta jarraipen-sistema
- 3.2. Babes publikoko egoitza-sistema garatzeko zerga- eta finantzaketa-politika
- 3.3. Etxebizitza-politiketako koordinazio-sistemak



Etxebizitzaren Aldeko itun Soziala **2021-2036**



Eskuragarria sustatzea Euskadin

1.1. Estrategia Babes publikoko etxebizitza-
parkea areagotzea

1.2. Estrategia Etxebizitza eskuragarria
bermatzera bideraturiko
baliabideen eta prestazioen
sistema garatzea

1.3. Estrategia Jenderik gabeko etxebizitzak

› 1.1. estrategia

Babes publikoko etxebizitzaren parkea handitzea, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu esklusiboa eginez.

1.1.1. ildo estrategikoa

Babes publikoko etxebizitza-parkea areagotzea eta hobetzea, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzeko, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu esklusiboa eginez.

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-programako etxebizitza-sustapenaren jarduerak, babes publikoko etxebizitza-parkea areagotzen jarraitzeko, alokairuaren aldeko apustu esklusiboa egiten jarraituko du aldi honetan, horrenbestez:

- Alokairu-araubidekoak izango dira Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak zuzenean sustatutako etxebizitza guztiak.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako VISESA sozietate publikoak egindako gizarte-babeseko etxebizitzaren sustapen-jardueraren helburu nagusia da kalitatezko etxebizitza babestuak sustatzea, eta alokairu-araubidera birbideratu da haren eginkizuna; hori horrela, 2020. urtetik aurrera VISESAk sustatutako etxebizitza-sustapen berri guztiak alokairu-araubidera bideratu dira.
- Beste erakunde batzuen gainerako ekimen publikoek ere beren jarduketetan alokairuko esklusibotasunaren legezko asmo horiek bete ditzaten laguntzea.

Horrenbestez, plan honek hainbat eratako ekintzak jasotzen ditu alokairu-araubideko etxebizitza babestuak sustatzeko; horien artean, alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzeko bestelako moduak, lankidetzak publiko-pribatuaren bidez.

1.1.1.1. ekintza Alokairu babesturako etxebizitzak sustatzea.

Hemendik aurrerako aldi honetan, alokairu eskuragarriko etxebizitzaren kopurua handitzearen aldeko apustua egingo da, alokairu babestuko araubideko etxebizitzaren politikak bultzatuz, udalekin lankidetzan, eta alokairuko lankidetzak publiko-pribatua ere sustatuz.

1.1.1.2. ekintza Alokairu babesturako etxebizitzak eskuratzea.

Etxebizitzak erosteko bideratzen diren jarduerak dira, ondoren etxebizitza horiek alokairu babestuan ipintzeko gutxienez 20 edo 50 urteko epean, lehen errentamendu-kontratua ikus-onetsita aurkezten denetik kontatzen hasita. Epe horretan ezin izango da aldatu etxebizitzaren erabilera.

1.1.1.3. ekintza Alokairu babestua sustatzea despoblazioak eragindako inguruneetan eta landa-eremuetan.

Alokairu babestuko etxebizitzak sustatzeko jarduketa espezifikoak bultzatuko dira etxebizitza-politikaren ahalegin berezia eskatzen duten eremuetan, hala nola landa-eremuetan eta despoblazioak eragindako inguruetan:

1.1.1.3.1.- Alokairu babestuko parkea areagotzeko dirulaguntza bereziak.

Lurralde-eremu horretan guztian ezarriko dira lurralde osorako oro har babes daitezkeen jarduketa guztiak eta pizgarri bereziak dituztenak, dirulaguntza areagotuen bidez, babes publikoko etxebizitzak alokairu babesturako sustatzeko babes teknikoko kostuak eta urbanizazioari lotutako kostuak estaltzeko.

1.1.1.3.2.- Titulartasun publikoko etxebizitzak birgaitzearen bidezko sustapena.

Landa-eremuetan dauden titulartasun publikoko etxebizitzak alokairu babesturako birgaituz egingo da sustapena; gutxienez 20 urteko epean bideratuko dira alokairu babestura, lehenengo errentamendu-kontratua ikus-onesteko aurkezten den egunetik kontaktzen hasita. Epe horretan ezin izango da aldatu etxebizitzaren erabilera.

1.1.1.3.3.- Erakunde publikoek erabiltzen ez dituzten eraikinak erostea, birgaitzeko.

Jarduera horren barruan sartzen da erakunde publikoek erabiltzen ez dituzten eraikinak erostea, despopulazioak eragindako inguruneetan alokairu babestuko etxebizitzak egiteko eta egokitzeko.

1.1.1.4. ekintza Erakunde publiko eta pribatuentzako laguntzak, alokairu babestuko etxebizitzak sustatzeko.

Erakunde publiko eta pribatuentzako laguntzak ere sartzen dira, alokairu babestuko etxebizitzak susta ditzaten. Bereziki azpimarragarria da EAEko udalerrietako etxebizitza-sozietate publikoek eta VISESAk berak arlo horretan egin duten lana.

1.1.1.4.1.- Etxebizitza-parke publikoa sustatzea lankidetzara publiko-pribatuaren bidez.

Jarduera horren xedea da sustapen eta titulartasun pribatuko etxebizitza-parke alternatibo bat sortzea lankidetzara publiko-pribatuko mekanismoen bidez, baina Etxebizitza sailari epe luzerako lagata, alokairu babestura bideratu daitezten. Hala, jarduketa mota horrek barne hartzen du alokairu babestuko lagapen-erregimeneko etxebizitzaren sustapena, bai etxebizitza eraiki berriena, bai birgaitutako eta alokairuan jartzeko gaikuntza berriko etxebizitzena, dela erakunde sustatzaileak sustatutakoa, dela besterentzearen edo hirugarren bati lagatzearen bidez, hirugarren horrek bideratuko baititu etxebizitzak alokairu babestura.

Babestutako errentamendurako etxebizitzaren sustapena erabilera horretarako erabili beharko da, gutxienez 20 urterako, baldin eta entitate sustatzaileak zuzenean babestutako errentamendura bideratzen badu, eta, sustapenaren kasuan, gutxienez 75 urterako, gero besterentzeko edo etxebizitzak babestutako errentamendura bideratuko dituen hirugarren bati lagatzeko.

Lehenbiziko alokairu-kontratua ikus-onetsita aurkezten den egunetik aurrera zenbatuko da alokairu babestura bideratzeko eskatzen den gutxienezko epea Epe horretan ezin izango da aldatu etxebizitzaren erabilera.

1.1.1.4.2.- Alokairu programa.

Lankidetzara publiko-pribatuko mekanismo horren bidez, inbertitzaile instituzionalak etxebizitzak edo eraikin osoak sustatzen edo eskuratzen ditu, zuzenean edo zeharka (eraikin berriak edo birgaituak); bestela, berriz, etxebizitza askeak edo etxebizitza askeen eraikin osoak eskuratzen ditu, aurrez birgaituta ala ez, eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitzaren alorreko eskumena duen sailari lagatzen dizkio, zeinak bermatzen baitio alokairu-errenta bermatu bat eskuratuko duela, baita epe luzera erosteko aukera ere, hala badagokio.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak hitzarmen espezifikoak sinatuko ditu jarduera bakoitzerako higiezin sektorean inbertitzen duten inbertitzaile instituzionalekin, hala nola pensio-funtsekin, gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin, aseguru-etxeekin, higiezinetakoko inbertsio-sozietateekin, higiezinetakoko inbertsioko sozietate kotizatuekin eta, oro har, sektorean zuzenean edo zeharka inbertitzen duen antzeko beste edozein erakunde edo tresnarekin. Lagapen-epea 75 urtekoa izan daiteke gehienez.

1.1.1.5. ekintza Udal-lurzoruen lagapenak alokairu babestuko etxebizitzak sustatzeko.

Alokairu babestua eta, bereziki, zuzkidura-bizitokiak sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak udalekin lankidetzara jardungo du eraikinak altxatzeko edo lehendik altxatuta dauden eraikinak birgaitzeko eta egokitzeko, emakida-araubideko zuzkidura-bizitokietarako, lurzorua lagata; horretarako, laguntzak emango ditu horiek erosteko, zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko eta zuzkidura-bizitokietarako higiezinak birgaitzeko eta egokitzeko.

Zuzkidura-bizitokietarako berariaz kalifikatutako lurzoruetan nahiz ekipamendutzat kalifikatutakoetan kokatu ahal izango dira zuzkidura-bizitokiak, betiere plangintzak zuzkidura-bizitokirako erabilera baimentzen duenean, bai eta horretarako lehendik dauden titulartasun publikoko eraikin edo lokaletan ere.

Administrazio-emakidaren araubideko zuzkidura-bizitokien zeharkako sustapenean, emakidaren xedea zuzkidura-bizitokien kudeaketa zein obra izan daiteke.

1.1.1.6. ekintza Zuzkidura-bizitokiak sustatzea.

Zuzkidura-bizitokiak sustatzeko, hiru jarduera mota aurreikusten dira plan honetan:

- 1.1.1.6.1.- Zuzkidura-bizitokiak sustatzea, erakundeen arteko lankidetzak sustatuta, etxebizitza-premia berezia duten kolektiboentzako zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko
- 1.1.1.6.2.- Alokairuko zuzkidura-bizitokien sare publikoa sortzea sustatzea, batez ere gazteei eta adinekoei zuzenduta.
- 1.1.1.6.3.- Pertsona juridiko publiko batek sustatzea eta eraikitzea zuzkidura-bizitokiak, zuzenean edo zeharka, titulartasun publikoko lurzoruan. Bizitoki horiek aldi baterako erabiliko dira premia bereziko kolektiboentzat.

1.1.1.7. ekintza Etxebizitza kolaboratiboak eta etxebizitza forma berriak sustatzeko laguntzak.

Elementu berritzaile gisa, plan honek bultzada berezia eman nahi dio etxebizitza kolaboratiboak eta etxebizitza-forma berriak sustatzeari. Hori horrela, jarduera hauek sartzen dira:

- 1.1.1.7.1.- Sustatzeko laguntzak, bizitegi-multzoak birgaitzea eta/edo eskuratzea barne, kooperatiben eta irabazi-asmorik gabeko bestelako elkarte-moduen bidez, etxebizitzaren erabilera lagatzeko. Etxebizitzaren onuradunen artean egongo dira adinekoak, gazteak, belaunaldi desberdineko pertsona-taldeak, guraso bakarreko familiak, familia ugariak, desgaitasunak dituzten pertsonak eta alokairu-araubideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan 3 urtetik gorako antzintasuna duten eskatzaileak, bai eta etxebizitza-premia modu frogagarrian justifikatzen duten kolektiboak ere, autosustapeneko taldeak edo erakundeak barne. Sustapen berean, kolektibo bati edo batzuei zuzendu ahal izango zaizkie sustapenok.
- 1.1.1.7.2.- Sailarena berarena ez den titulartasun pribatuko edo publikoko bizitegi-lurzoruetan edo -higiezinetan erabilera-lagapeneko etxebizitzak sustatzeko laguntzak, Kooperatibei edo erabilera-lagapeneko etxebizitzetarako irabazi-asmorik gabeko elkartei lagatzeko. Laguntzak eskuratzeko, etorkizuneko kooperatibak edo egoiliarren elkarteak barne-erregelamenduetan eta estatutu eratzailuetan bermatu behar du modu iraunkorrean eusten diola erabilera lagatzeko araubideari. Kooperatibak edo elkarteak bere gain hartuko du bizitegi-eraikina altxatzeko kostua edo bizitegi-erabilerarako gaitzeko birgaitze-kostua, eta kooperatibako bazkideek edo kideak hasierako ekarpen bat eta erabileragatik kanon bat ordainduko dituzte, zeinean jasoko baitira, besteak beste, finantzaketa-kosten ordainketa, higiezinaren mantentze-gastuen estaldura eta proiektuaren kudeaketa operatiboa.
- 1.1.1.7.3.- Etorkizuneko egoiliarren kooperatiba edo elkarte bat osatzen duten pertsonentzako laguntzak, betiere eskakizun batzuk betetzen badituzte.

1.1.1.8. ekintza Ekimen pribatu eta publikoko alokairu eskuragarria sustatzeko arau-esparru berria sustatzea.

Plan honen ekintza berritzaileenetako bat da alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzaren araubide espezifiko bat arautzen duen arau-esparru berri bat sustatzea, etxebizitza-premia duten eta urtean 21.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonen zuzendua, bizikidetzak unitatearen diru-sarrera haztatuei dagokienez, eta urtean 39.000 eurotik beherakoak, baldintza berberetan.

Tankera horretako etxebizitzak alokairu eskuragarrian sustatzen dituzten erakundeek alokairua sustatzeko laguntza publikoak eskuratu ahal izango dituzte. Alokairu eskuragarriko babes ofizialeko etxebizitza mota hori sustatzen duen entitateak edo entitate horrek zehazten duen alokairu-kudeatzaileak hautatu ahal izango ditu maizter-maizterrek, etxebizitza-premiaren baldintzak eta unean-unean indarrean dagoen babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari buruzko araudiak eskatzen dituen beste batzuk erabat beteta. Halaber, alokairu eskuragarriko etxebizitzaren errentak finkatzeko, babesturiko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteko arauak bete beharko dira.

1.1.1.9. ekintza Lurzorua eskuratzeko eta urbanizatzeko eragiketetarako laguntzak, edozein administrazio publikoren mendeko lurzoru-ondareak eratzeraz, etxebizitza sustatzera bideratuak.

1.1.1.10. ekintza Etxebizitza erabilia erosteko programa publikoa martxan jartzea, alokairu babesturako baliatuzko.

Planaren beste ekintza berritzaileenetako bat etxebizitza erabilia modu zentralizatuan eta koordinatuan erosteko programa bat abian jartzea da, etxebizitzaren zuzeneko ondare-eskuraketak eta babes publikoko etxebizitzaren bigarren eta ondorengo eskualdatzeen merkaturaz arautzeko etxebizitza sailak egindako tanteoak eta atzera-eskuraketak osatzeko.

➤ 1.2. Estrategia **Etxebizitza eskuragarria bermatzera bideraturiko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea**

1.2.1. ildo estrategikoa

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta alokairurako prestazioen kodeaketako etapa berria.

1.2.1.1. ekintza Kolektibo berrientzako etxebizitzarako eskubide subjektiboa (EES) garatzea.

Datozen urteetan, etxebizitzarako eskubide subjektiboa ipiniko da ardatz nagusi gisa Euskadin, etxebizitza-eskubidea aitortzeko prozesuan. Horretarako, aurrera egingo da eskubide hori kolektibo eta pertsona-talde berriei aitortzeko bidean.

1.2.1.2. ekintza Alokairua ordaintzeko laguntzen multzoaren kudeaketa koordinatua diseinatzea: Lanbidek kudeatutako Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) Etxebizitzak kudeatutako Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikora (EPE) igarotzea.

2022tik aurrera, Etxebizitzak hartuko du bere gain aurreko Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren kudeaketa, eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren barruan sartuko du.

Erroka handia da hori alokairu-politikarentzat eta Etxebizitza politikarentzat. Gogoratu behar da emantzipatuta daudela Etxebizitzaren izena emanda dauden eta alokairu babesturako etxebizitza eskatzen duten biztanle asko (%80), eta horietako askok prestazio hori edo beste osagarri bat kobratzen dutela. Arlo horri dagokionez, hauek dira hurrengo urteetan egingo diren jardueraz garrantzitsuenak:

1.2.1.2.1.- 2022an Etxebizitzarako Prestazio Osagarria Etxebizitzaren kudeaketaren barruan sartu zen. Kudeaketa transferitzeko prozesua Lanbiderekin koordinatuko da, alokairurako prestazioen onuradunen eskubideak bermatzeko, berme juridiko guztiekin eta lotutako prestazioen eskubideak eta betebeharrak bateratuta.

1.2.1.2.2.- 2022an eta 2023an, Lanbideko eta Sailburuordetzako teknikari-talde bat ezartzea, prozesu horren jarraipena eta kudeaketa egiteko, prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko eta sor daitezkeen disfunczioak konpontzeko.

1.2.1.3. ekintza Alokairu-merkatuaren jarraipena egiteko sistema bat ezartzea.

Alokairu-merkatuari buruzko informazio estatistiko sendorik ez izatea defizit handia da Europan, Espainiako estatuan eta Euskadin, eta horrek zaildu egiten du programen eta laguntzen diseinu egokia. Horregatik, estatuan aitzindariak diren hainbat jarduera sartu dira plan honetan:

- 1.2.1.3.1.- Lurralde-ordezkaritza handiko eta biztanleria-estratuaren araberako estatistika bat egitea, hainbat adierazle modu ebolutiboan aztertu ahal izateko: etxe horien egoera sozioekonomikoa, ordaintzen duten alokairuaren batez besteko prezioa, diru-sarrera eta familia-laguntza horiek duten garrantzia familia-errentarako, alokairua ordaintzeko benetako finantza-ahalegina eta prestazio- eta inskripzio-sistemaren estaldura-mailak Etxebiden.
- 1.2.1.3.2.- Alokairu-merkatuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko dispositibo bat sortzea, tentsioa duten eremuen mugaketa errazteko. EPOaren kudeaketak (jada EPE gisa txertatuta 2022an), Alokairuaren Merkatuaren Estatistikak (AME) emango duen informazioaren eskuragarritasunak eta Sailaren Estatistika Organoak eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak sortzen duten gainerako informazioak agerian uzten dute etxebizitzaren merkatuaren azterketan jauzi kualitatibo bat emateko aukera. Helburua da aldagai estrategikoak monitorizatzea, programak eta prestazioak egokiago diseinatzen laguntzeko, sinergiak sortzeko eta horien arteko gainjartzeak saihesteko.
- 1.2.1.3.3.- Alokairu libreko etxebizitzaren prezioari eustea edo hura murriztea sustatzen duten sistemak aztertzea, jabeentzako zerga-pizgarrien bidez. Era berean, Euskadiko alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren egoera kontuan hartuta, Estatuko Etxebizitza Legean edukizaila handiei aplikatutako neurriak aztertzea eta, hala badagokio, ezartzea planteatzen da.

1.2.2. ildo estrategikoa

Alokairu-erregimeneko gazteen emantzipazioa sustatzea.

1.2.2.1. ekintza Gaztelagun programa indartzea eta zabaltzea.

Gaztelagun programak arrazoizko eraginkortasun-maila izan du azken urteotan. Horregatik, 2019an erabaki zen hura indartzea eta diru-sarrera handiagoko kolektiboetara zabaltzea, garestien dauden udalerrietan alokairu librea eskuratzeko zailtasunari erantzuteko. Egitura-programa bihurtzen da, eta 36 urtera arteko laguntza iraunkorrak izango dira, metropoli-eremuetako errentaren gehieneko prezioak eta alokairu-prestazioen zenbatekoa handituz.

1.2.2.2. ekintza Gazteek etxebizitza babestua eskuratzeko indartzeko ekintzak.

- 1.2.2.2.1.- Gazteei etxebizitza babestua esleitzeko kupoak aplikatzea.
- 1.2.2.2.2.- Zuzkidura-bizitokiak gazteentzako espezializatzea.
- 1.2.2.2.3.- Gazteak Emantzipatzeko Euskal Estrategiarekin koordinatzea.

2.3. ildo estrategikoa

Etxebizitza-premia berezia duten kolektiboentzako arreta-ekintzak (etxegabetzeak, genero-indarkeria, etxegabetasuna, gizarteratzea eta abar), Alokabideren ekintzak eta hirugarren sektorearekiko lankidetzak txertatuz.

1.2.3.1. ekintza Etxebizitza-premia berezia duten kolektiboentzako esleipen-kupoak: familia ugariak, bananduak edo dibortziatuak, guraso bakarrekoak, genero-indarkeria, bazterketa-arriskuan dauden taldeak, etab.

1.2.3.2. ekintza Kaleratze judizialean esku hartzea, bizitegi-bazterkeriaren aurkako borrokan.

- 1.2.3.2.1.- Botere Judizialaren Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzaren, Eudelen eta udaletako gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-lanekin jarraitzea
- 1.2.3.2.2.- Hala badagokio, beste bizileku-aukera bat ematea, etxebizitzak ezarritako prozeduren bidez esleitzuz jarraitu egingo da pertsona kalteberei bizitegi-soluzio alternatiboak eskaintzeko eta etxegabetzeak prebenitzeko egindako koordinazio-lanekin, bizitegi-alternatibaren programaren esparruan Eudelekin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin itundutako baldintzetan.

1.2.3.3. ekintza Hirugarren sektorea etxebizitza sozialen sare lagungarri baten garapenean sartzea (errefuxiatuak, Housing First, genero-indarkeria, zahartzea, gizarteratzea).

Bizitegi-bazterkeriako egoeran dauden kolektiboetako erantzuteko aurreko planean jasotako jarduerak mantentzea eta handitzea proposatzen da, aurreko planean lagatako 120 etxebizitzara arte.

1.2.3.3.1.- Etxebizitzak lagatzea hirugarren sektoreko erakunde eta entitateei, gizarteratzearekin lotutako proiektuak garatzeko.

Lankidetzak-hitzarmenak egingo dira hirugarren sektoreko erakundeekin sustapen publikoko etxebizitzak lagatzeko, bizitegi- eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen ostatu emateko eta esku-hartze sozialerako programetarako.

1.2.3.3.2.- Modu espezifikoagoan, planteatzen da aurreko planetik datozen jarduketan multzoa mantentzea, bizitegi-soluzioak bilatzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat:

- Larrialdi-egoerak EAEn (uholdeak, suteak, lur-jausiak...)
- Errefuxiatuen harrera
- Housing First programa
- Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen etxebizitzak zuzenean esleitzeko programa
- Bizitoki alternatiborako etxebizitzak zuzenean esleitzeko programa
- Lehentasuneko beste jarduerak batzuk

1.2.3.4. ekintza Euskarri estrategian parte hartzea, egoera ahulean dauden adingabe eta gazte familiarak gizarteratzeko.

- Familian erreferenterik ez duten adingabeentzako ekintzak (Euskarriekin elkarlanean).

> 1.3. estrategia Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea

1.3.1. ildo estrategikoa

Jenderik gabeko etxebizitzak alokairu babestura bideratzea.

1.3.1.1. ekintza Bizigune programari bultzada berria ematea.

Bizigune programari bultzada berri bat eman nahi zaio, udalekin lankidetzan arituz etxebizitza pribatuak alokairu babestura erakartzeko, hutsik dauden etxebizitzak identifikatzeko eta mobilizatzeke lankidetzak-sistemak ezarriz, eta informazio publikoko jarduerak bultzatuz, indarrean dauden alokairu babestuko etxebizitzak lagatzeko programak ezagutarazteko publizitate-kanpainen bidez. Zehazkiago, honako jarduerak hauek planteatzen dira::

1.3.1.1.1.- Hitzarmenak finantza-erakundeekin

Hitzarmenak finantza-erakundeekin eta beste edukitzaile pribatu handi batzuekin.

Etxebizitzak dituzten finantza-erakundeekin hitzarmenak sinatzea bultzatuko da, etxebizitzak Eusko Jaurlaritzari lagatzeko. Alokabidek kudeatuko ditu eta babestutako alokairura bideratuko dira. Ildo beretik, etxebizitzak dituzten beste erakunde pribatu batzuekin hitzarmenak sinatzea sustatuko da.

1.3.1.2. ekintza ASAP Programa.

ASAP programa mantenduko da, titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairu-merkatuan arrazoizko prezioan sar daitezzen errazteko helburuarekin.

1.3.2. ildo estrategikoa

Etxebizitza babestuen parkea kontrolatzea eta ikuskatzea

1.3.2.1. ekintza **Etxebizitza babestuen parkearen erabilera optimizatzea: babes publikoko etxebizitzak ikuskatzeko eta kontrolatzeko sistema indartzea.**

Eutsi egiten zaio etxebizitza babestuen parkea ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahaleginari, ikuskatzaile publikoen taldearen lanaren eta etxebizitzaren erabilera egiazatzeko sistemen bidez; horren helburua da egoera irregularrak eta legez kanpokoak saihestea, etxebizitza horiek erabiltzean eta, bereziki, jenderik gabe daudenean. Hainbat aldiz ikuskatu da parke babestua, eta areagotu egin da ikuskapenen kopurua.

1.3.3. ildo estrategikoa

Jenderik gabeko etxebizitzekin loturik, arau-esparrua eta erakundeen arteko lankidetzak garatzea.

1.3.3.1. ekintza **Jenderik gabeko etxebizitzei buruzko Dekretuan sartutako ekintzak abian jartzea.**

2021eko etxebizitza-politikaren mugarri nagusietako bat Jenderik gabeko etxebizitzei buruzko Dekretua onestea izan da.


Dekretu horrek berrikuntza garrantzitsu batzuk jasotzen ditu, jenderik gabeko etxebizitzak merkatura bideratzen laguntzeko, eta, bereziki, alokairuko etxebizitzaren eskaintzara, prezio eskuragarrian. Gauzak horrela, planean aurreikusitako ekintza nagusiak martxan jartzeko laguntza ematea planteatzen da. Dekretu horrek hainbat tresna garrantzitsu biltzen ditu:

- Jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroa.
- Jenderik gabeko etxebizitzaren kanona.
- Birgaitze-politikekin koordinatzeko programak.
- Aparteko neurriak etxebizitza-premia eta -eskari bereziko eremuetan, hala nola nahitaezko alokairuan.

1.3.3.2. ekintza **Udalei laguntzeko estrategia, jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroak diseinatzeak eta etxebizitza hutsak Bizigune programara mobilizatzeko.**

1.3.3.2.1.- Jenderik gabeko etxebizitzaren inbentarioak egiteko gida didaktikoak diseinatzea, jenderik gabeko etxebizitzaren erregistro autonomikoa eratzen laguntzeko, prozedura eta irizpide homogeneoen bidez.

1.3.3.2.2.- Hitzarmenak formalizatzea udalekin, jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko eta Bizigune programan sartzeko. Udalen eta Etxebizitza Sailburuordetzaren arteko hitzarmenak abiaraztea, hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko eta etxebizitza horiek Bizigune Programan sartzeko. Hitzarmen horietan hainbat jarduketa mota jasoko dira, hala nola etxebizitzak egokitzeko laguntzak eta laguntza, bai hutsik dauden etxebizitzak detektatzeko koordinazioaren arloan, bai programa zabaltzeko.



Bizitegi-eraikinen parkearen gaineko jarduketak

2.1.

Estrategia

Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea

2.2.

Estrategia

Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea

2.3.

Estrategia

Eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea

2.4.

Estrategia

BHSeekin (Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak), udalekin eta etxebizitzako sozietate publikoekin koordinatzea, herritarrei arreta hobea emateko eta errehabilitazio-agentearen figura eta birgaitze integrala sustatzeko

› 2.1. estrategia **Eraikinen eta etxebizitzen parkea birgaitzea**

2.1.1. ildo estrategikoa

Parke pribatuaren birgaitze- eta jasangarritasun-programak. Baliabideak arrazionalizatu eta optimizatu ahal izateko tresna berriak indartzea eta sortzea, eraikinen eta etxebizitzen parke jasangarri bat lortzen jarraitzeko eta herritarren beharrei erantzuteko.

2.1.1.1. ekintza EITak bultzatzea eta erraztea, birgaitze-politikaren elementu nagusi gisa, jarraipen-lana indartuz udal txikiagoekin.

EITa egitea ezinbestean lotuta dago birgaitzeari eman nahi zaion bultzadarekin, gaur egun birgaitzerako laguntzak lortzeko sine qua non baldintza bat baita. Ildo horretan, lege-betebeharrak betetzen laguntzeaz gain, EITa balioetsi nahi da, jabekideen erkidegoentzat interesgarria den diagnostiko-tresna gisa, batetik, eta, bestetik, birgaitze-helburu kolektiboak lortzen laguntzeko, esku-hartzeen kopuruari zein irismenari dagokienez.

- 2.1.1.1.- EITa balioesteko informazio-kanpainak egitea, laguntza eta finantzaketa handiak lortzeko aukera dela eta haien bidez eraikinen eta etxebizitzen kalitatea eta bizigarritasun-baldintzak hobetu daitezkeela azaltzeko.
- 2.1.1.2.- Lankidetzeta eta udalei laguntza tekniko emateko sistema indartzea, EITak eta haiek lortzeko obrak egin daitezen sustatzeko, Europako Funtsek emango duten aukerari begira.
- 2.1.1.3.- EITko prozedurak eraikinen libururako aurreikusitakoekin koordinatzea, tresna osagarriak izan daitezen eta sistema korapilatzen duen bikoiztasunik sor ez dezaten, herritarren zein administrazioaren ikuspegitik.

2.1.1.2. ekintza Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko programak garatzea, eta birgaitze integrala Europako funtsen bidez finantzatzeko aukera berriak optimizatzea, energia-eraginkortasunaz gain irisgarritasuna eta bizigarritasuna ere ardatz hartuta.

Egungo testuinguruan —batez ere Next Generation funtsekin lotutako finantzaketa— aukerak kontuan hartuta— egokia da birgaitzeko laguntzen programa publikoak indartzea, Euskadiko bizitegi parkea eraberritzeko.

- 2.1.1.2.- Eraikinen eta etxebizitzen birgaitze integralari lotutako laguntzak sinplifikatzea, deialdi bakar eta iraunkor batean bat eginez.
 - **1. eta 2. programa:** partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntzak, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko.
 - **3. programa:** etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzeak, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.

- 2.1.1.2.2.- Erkidegoentzako eta banakako laguntzak handitzea, kopuruan eta zenbatekoan. Babes daitekeen aurrekontuaren % 30 eta % 70 artekoak izango dira laguntzak, eta kolektiborik ahulenei emango zaie lehentasuna, laguntzak eskuratu ditzaten.
- 2.1.1.2.3.- Etxebizitzaren birgaitze integral eta eraginkorraren arloko laguntzen programa indartzea, esku-hartze proiektuak egiteko eta horietatik eratorritako obrak gauzatzeko, lehentasuna emanez Birgaitze Integratuko Eremuetan edo Bizitegi Eremu degradatuetan eta Lehentasuneko ekintza-eremua (LEE) zonetan kokatutako proiektuei.
- 2.1.1.2.4.- Aurreikusitako jarduera-gehikuntza bere gain hartzeko kudeaketa-prozedura eta -tresna egokiak gaitzea (enpresen inplikazioa, SUR, VISESA, finka-administratzaileak, arkitekto teknikoak, arkitektoak eta beste birgaitze-agente batzuk).
- 2.1.1.2.5.- Etorkizuneko egoera posibleetan birgaitzearen finantzaketari jarraipena emango dion sistema bat sortzea, zuzeneko laguntzen pisu txikiagoarekin, eta, besteak beste, abal publikoa duten maileguren bidez birgaitze-jarduketak finantzatzen lagunduko duten jarduerak aurreikustea.

2.1.1.3. ekintza Hutsik dauden eta egokiak ez diren etxebizitzak birgaitzeko programak garatzea, berehala alokairuko merkatuan sartzeko.

Beharrezko Helburua da hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programetara erakartzea, baldin eta ez badituzte betetzen bizigarritasun-baldintzak, eta, horren truke, okupatuta egotearen eta beren funtzio soziala betetzearen truke. Horretarako, eta beharrezkoa izanez gero, aktibatu egingo dira hutsik dauden etxebizitzak zaintzeko, mantentzeko eta birgaitzeko eginbeharra eta haien funtzio soziala betetzen ez diren kasuetarako arautu berri den Dekretuan aurreikusitako neurriak.

2.1.1.4. ekintza Big Datako eta adimen artifizialeko sistema berritzaileak ezartzea, birgaitze-premiarik handienak izan ditzaketen eremuak hautatzeko.

Berrikuntza aplikatzea, birgaitzeko esku-hartzeen kudeaketa eta plangintza hobetu, arrazionalizatu eta optimizatzeke.

2.1.2. ildo estrategikoa

Etxebizitza-parke
publikoaren
mantenimendua eta
kontserbazioa
bultzatzea.

Euskadiko bizitegi-erakinen parkearen eraldaketa gidatzea, pertsonen interes eta beharrek bat datozen birgaitze- eta kudeaketa-eredu berritzaileak ezartzen jarraituz

2.1.2.1. ekintza Zero Plana garatzea, Eusko Jaurlaritzaren parke publikoaren birgaitze eraginkorrerako.

Alokairuko parke publikoaren energia- eta irisgarritasun-trantsizioko plan integrala ezartzea. Plan horren azken helburua da Eusko Jaurlaritzaren parke publikoko eraikinen energia-kontsumo ia nulua eta zero isurketa lortzea epe ertain eta luzera.

- 2.1.2.1.1.- Plana gauzatzeko erritmoa areagotzea, finantzaketa-aukera berriak baliatuta.
- 2.1.2.1.2.- Eraikitako parke babestua optimizatzeke azterlanak eta ikerketa-proiektuak garatzea, bere hiru erronka estrategikoetan (zerbitzu integral aurreratua, etxe osasungarri eta irisgarriak, parke hornitua eta eraginkorra) (ZTBPrek ekimen estrategikoa).
- 2.1.2.1.3.- Parkearen birgaitzea aztertzea, Bizigarritasun Dekretuaren aukerak optimizatuta, handitzeko eta birgaitzeko kanpo-ekintzen bidez, eta hutsik dauden eraikinak eta lokalak balioestea.

2.1.2.2. ekintza Parke babestuan energia-pobreziaren aurka borrokatzeko proiektu pilotuak: e-Lagun proiektua.

E-Lagun zerbitzua garatzea, Euskadiko alokairuko etxebizitzaren parke publikoko erabiltzaileei energia-horniduren kudeaketaren inguruan aholkularitza eta laguntza emateko, ahalik eta ekonomia- eta ingurumen-baldintzarik onenak bermatu eta kontsumo-ohitura efizienteak sustatze aldera.

2.1.2.2.1.- Familientzako informazio-ekintzak garatzea.

2.1.2.2.2.- Etxebizitza sozialeko enpresa publikoetako langileei prestakuntza ematea.

2.1.2.2.3.- Administrazio publikoak energia-ekoizle edo -banatzaile gisa zuzenean esku hartzeko zerbitzu baten bideragarritasuna eta komenigarritasuna aztertzea.

2.1.2.3. ekintza Energia-eredua aldatzen jarraitzea eta autonomia-erkidegoetan herritarren ahalduzte energetikoa babestea.

2.1.2.3.1.- Eredu kementsu batean aurrera egitea ahalbidetuko duen azterlan bat garatzea, non pertsonen energiaren balio-kateko maila desberdinetan (ekoizpena, banaketa eta zerbitzuen prestazioa) paper nagusi bat jokatu duten, eta energia garbiak eta berriztagarriak prezio justuetan eskuratzeko ahalbidetuko duen (komunitateak eta energia-kooperatibak indartzuz).

2.1.3. ildo estrategikoa

Irisingarritasun unibertsala bultzatzea.

Irisingarritasuna birgaitzeko politiken oinarriko eta zeharkako elementutzat hartzea, eta etxebizitzetan irisingarritasunaren kontzeptu berria bultzatzea, Irisingarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren postulatuaren ildotik, oztopo fisikoak kentzea baino gehiago izan dadin.

2.1.3.1. ekintza Irisingarritasun Unibertsaleko Estrategia: lehen ekintza-plana garatzea.

Etxebizitzaren eta hiri-ingurunearen eremuan Irisingarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatzeko neurriak bultzatzea.

2.1.3.1.1.- Irisingarritasuna Euskadiko etxebizitza-politikaren elementu bereizgarritzat hartzea, energia-efizientzia bultzatzen duten politiken eta programen barruan.

2.1.3.1.2.- Irisingarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua koordinatzen jarraitzea, Irisingarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana egiteko eta garatzeko.

2.1.3.1.3.- Bizitegi-irisingarritasun unibertsalaren ziurtagiria diseinatzea eta ezartzea, irisingarritasun unibertsala sustatzeko funtsezko elementu gisa eta kalitate-label gisa.

2.1.3.1.4.- Lehenetsuneko finantza-neurriak indartzea 65 urtetik gorako pertsonak dituzten familientzat eta diru-sarrera gutxien dituzten pertsonentzat.

2.1.3.2. ekintza Irisingarritasun unibertsala bermatzeko jarduketak bultzatu eta positiboki diskriminatzea.

Irisingarritasun unibertsalerako eskubidea bermatzera eta gauzatzera bideratutako jarduerak areagotzea, lehenetsuneko esku-hartzea behar duten kasuetan arreta jarri. Erabiliko diren aurrekontu-baliabideak toki-erakundeek izango dira.

2.1.3.2.1.- Irisingarritasunaren arloan lehenetsun ez estali beharreko premiak identifikatzea.

2.1.3.2.2.- Lehenetsuneko hartutako kasuetan irisingarritasuna bermatzeko jarduketak jakinaraztea, informatzea eta bideratzea.

› 2.2. estrategia

Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea

2.2.1. ildo estrategikoa

Arkitektura kalitate-politikaren ardatz gisa finkatzea.

Arkitektura eta diseinua finkatzea, Euskadiko etxebizitzaren parke publikoa eta pribatua eraikitze eta birgaitze prozesuetan kalitate-politika baten zeharkako ardatz gisa. Etxebizitza arkitektura-egitate eta gizarte-aktibo gisa.

2.2.1.1. ekintza **Bizigarritasun Dekretua garatzea (barruko + kanpoko bizigarritasuna).**

Bizigarritasun Dekretuaren erkidego-mailako lehen arau-garapena. Dekretu horrek soilik arautzen ditu barruko eta kanpoko —terrazak eta balkoiak— gutxieneko bizigarritasun-baldintzak, bai obra berrikoetan, bai lehendik dauden eraikinetan.

Dekretuaren bidez, etxebizitza moldakorrak eta malguak sortu nahi dira; alegia, denboraren poderioz biziaren egoerara —besteak beste, zahartzea eta mendekotasuna— zein gaur egungo premia eta bizimoduetara —telelana, besteak beste— egokituko direnak. Halaber, etxebizitzaren deshierarkizazioa eta genero-ikuspegia hartzen ditu barne.

2.2.1.2. ekintza **Eraikinen kalitate-kontrolari beste bultzada bat ematea.**

Arkitektura, Araudi eta Eraikinen Kalitate Kontrolerako Zerbitzua, eta haren laborategia, eraikuntzaren hainbat eremutan kalitate, berrikuntza eta jasangarritasun kontzeptuak barne hartzen dituen erakundea den aldetik; besteak beste, ElTen erregistroaz, energia-efizentzia, kontrol akustikoz eta obrako kalitate-kontrolaren ikuskapenaz arduratzen da.

2.2.1.3. ekintza **Arkitektura-zerbitzuak lizitzatzeko eta kontratatzeko baldintzak etengabe hobetzen jarraitzea, etxebizitza publikoaren sustapenarako.**

Arkitektura-zerbitzuen lizitazio arruntetako balorazio ekonomikoko irizpideei buruzko irizpide teknikoak haztaperen handiagoa, azkenean sektore publikotik kontratatutako proiektuen kalitatea handiagoa izan dadin. Lizitazio berritzaileak sustatzea proiektu zehatzetan, proiektu-lehiaketaren bidez, epaimahaiaren esku-hartzearekin.

2.2.2. ildo estrategikoa

Eraikuntza publikoan ikerketa + berrikuntza + jasangarritasuna sustatzea.

Lan proaktiboa egitea administrazio publikoaren, akademiaren eta lanbidearen artean, eraikuntza publikoaren prozesu osoan ikerketa, berrikuntza eta jasangarritasuna bizkortzeko, diseinutik eraikuntza-prozesuetara, babes publikoko etxebizitzaren erronka berriei erantzuteko.

2.2.2.1. ekintza **EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoarekiko (AGET) lankidetzara sendotzea, ikerketa eta berrikuntzarako.**

Etxebizitza publikoa diseinatzeko eta kudeatzeko prestakuntza aditua eta oso kualifikatua garatzea eta finkatzea.

2.2.2.1.1.- Etxebizitza publikoaren diseinu eta kudeaketa aurreratuko masterra sendotzea.

Esperientzia duten profesionalen edo tituludun berriei zuzendutako graduondokoa, bi aditu-ikastaroz osatua, zein bere aldetik egin daitezkeenak.

2.2.2.1.2.- Etxebizitza-mota berrietarako —tarteko etxebizitza, espazio kolektiboak etxebizitzan, etxebizitza produktiboa eta abar— diseinu-gidak.

2.2.2.2. ekintza **Ikuspegi berriak etxebizitzaren diseinuan.**

Etxebizitza-mota eta -eredu berrien garapen operatiboa ahalbidetzea, Bizigarritasun Dekretuaren eta Diseinu Arauen bidez, ildo horretako ideia-prozesuak bideratzeko diziplina anitzeko lan-lerroak martxan jarritz.

2.2.2.2.1.- Arkitekturaren arloko Europako Berrikuntza Programaren jarduerarekin jarraitzea Europan.

Etxebizitza produktiboen sustapenei buruzko lana, despopulatzearekin eta COVID-19aren osteko etxebizitzarekin lotutako errealitateak kontuan hartzen dituen. Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren parte-hartze egonkorra Europan Espainiako Batzorde Nazionalan, eta iraunkorra Europan Programako Batzorde Betearazlean.

2.2.2.3. ekintza **Ekonomia zirkularra sustatzea.**

Eraikuntza-arloan, ekonomia zirkularraren kontzeptua diseinutik eta arkitekturatik sartu behar da; arnasa luzeko lana da, gizartearen, ekonomiaren eta administrazioaren hainbat mailatatik hasi beharrekoa. Hauxe planteatzen dugu horren harira:

2.2.2.3.1.- Eraikuntzan erabilitako materialak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta murrizteko printzipioak garatzea, eta, horri esker, eraikinen jasangarritasuna eta ingurumen-inpaktua hobetzea.

2.2.2.3.2.-Printzipio horiek sustatzea, eta pixkanaka lizitazio, kontratu eta hitzarmenetan sartzea («erosketa publiko berritzailea eta berdea»).

2.2.3. ildo estrategikoa

Euskadiko Arkitektura
Institutuari (EAI)
laguntzea, agente
dibulgatzaile eta
dinamizatzaile gisa.

EAI modu irekian kudeatzen da, arkitektura, hirigintza, paisaia eta diseinua herritar guztiei hurbiltzen saiatzen da, bai eta euskal arkitektura garaikidea Estatuan eta nazioartean sustatzen ere.

2.2.3.1. ekintza **EAIk garatzen duen jarduera finkatzea.**

Institutuaren garapenean eta jarduera akademiko eta dibulgatzailean laguntzea.

2.2.3.1.1.- Dibulgazio-jarduera iraunkorra.

2.2.3.1.2.- Mugak Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienala egitea.

2.2.3.1.3.- Bi urtean behin Euskal Arkitektura Gaztearen Sariak antolatzea.

› 2.3. estrategia **Eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea**

2.3.1. ildo estrategikoa

Enpresa-ehuna eta balio erantsia sortzeko potentziala indartzea.

Plan honetan sektorea indartzen lagunduko duten ekintza-multzo bat txertatu nahi da, bai produkzio-sareari berari eta enplegua sortzeko duen potentzialari dagokienez, bai, bereziki, sektoreko langileen kualifikazioa eta kalitatea hobetzeari dagokienez.

2.3.1.1. ekintza Sektorearen balio-katea mapatzea eta enplegua sortzeko potentziala aztertzea, batez ere emakumeen eta gazteen artean.

- 2.3.1.1.1.- Eraikuntza-sektoreko eta horri lotutako sektoreetako enpresa-sarearen balio-katea osatzen duten eragile nagusien azterketa xehatua egitea, bai eta arlo horretan lan egiten duten eragile eta erakunde publiko estrategikoena ere.
- 2.3.1.1.2.- Sektorearen eragin ekonomikoa eta soziala aztertzea, bai eta hainbat egoeratan balio erantsia eta enplegua sortzeko duen ahalmena ere.
- 2.3.1.1.3.- Lanbide berrietan enplegua sortzeko potentziala aztertzea, eta emakumeak eta gazteak sektorerara erakartzea.

2.3.1.2.- ekintza Gazteen eta emakumeen artean sektorearen eta haren lan-merkatuaren irudia balioesten eta erakargarriago egiten duten komunikazio- eta hedapen-ekintzak abian jartzea.

2.3.1.3. ekintza Hezkuntza Sailarekin eta Lan eta Enplegu Sailarekin elkarlanean aritzea sektoreari lotutako Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza balioesteko, bereziki gazteen eta emakumeen artean.

- 2.3.1.3.1.- Sektorea eta haren lanbide eta okupazioak balioesteko jarduerak eta kanpainak egitea hezkuntzan eta lanbide-heziketan.

2.3.1.4. ekintza Mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei prestakuntza eta laguntza emateko programak garatu, prestakuntza duala garatzeko, Hezkuntza, Lan eta Enplegu Sailaren lankidetzarekin, eta etengabeko prestakuntza garatzeko, Eraikal programaren bidez.

- 2.3.1.4.1.- Eraikal programaren bidez prestakuntza-ibilbideak ezartzea, ekintzaile berrientzat.
- 2.3.1.4.2.- Prestakuntza-ekintzak garatzen laguntzea sektoreko enpresa txiki eta ertainentzat eta mikroenpresentzat.

2.3.1.5. ekintza Biztanleria aktiboaren (landuna eta langabea) birkualifikazioa eta ziurtopena sustatzea, Lanbideren, Eraikuntzaren Lan Fundazioaren eta klusterren laguntzarekin.

- 2.3.1.5.1.- Jarduerak sustatzea Lanbiderekin eta sektoreko eragileekin, bizitza osoko prestakuntza eta ikaskuntza sustatzeko.
- 2.3.1.5.2.- Enplegurako prestakuntza-programak antolatzea langabeentzat, sektorerako kualifikazio egokia lor dezaten.
- 2.3.1.5.3.- Lan-gaitasunak ziurtatzeko eta egiaztatzeko sistemarik ezar ote daitekeen aztertzea, batez ere prestakuntza formalik txikiena duten kolektiboan artean.

2.3.1.6. ekintza Europako Gizarte Funtseko eta Next funtsetako baliabideak optimizatzea ahalbidetuko duten proiektu eragileak, mikroenpresen sarea indartzeko eta enpresetan prestakuntza eguneratzeko, Lanbideren lankidetzarekin.

2.3.1.6.1.- Sektorean jarduera sustatzeko balioko duten proiektu estrategikoak diagnostikatzeko eta hautatzeko prozesu bat martxan jartzea, Europako finantzaketa-lerro eta funts berriak erakartzen saiatze aldera.

2.3.1.7. ekintza Etxeak egiteko eta birgaitzeko eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzea, ikerketako, berrikuntzako, prestakuntzako eta aplikazio operatiboko ekimen zehatzen bidez.

2.3.1.7.1.- Etxeak egiteko eta birgaitzeko eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzea, ikerketako, berrikuntzako, prestakuntzako eta aplikazio operatiboko ekimen zehatzen bidez.

2.3.1.7.2.- Ikerketa eta berrikuntza sustatzea industrializazioan eta prozesuen digitalizazioan, Eraikal programaren bidez.

2.3.1.7.3.- Etxebizitza publikoaren eta zuzkidura-bizitokien eraikuntza-prozesuen industrializazio progresiboa bultzatzea.

2.3.1.7.4.- Enpresa misto publiko pribatu bat sortzea, Euskadiko eraikuntzaren ekoizpen industrializatuari ekiteko eta hura gauzatzeko.

> 2.4. estrategia

BHSekin (birgaitzeko hirigintza-sozietateekin), **udalekin eta etxebizitza publikoko sozietateak koordinatzea, herritarrei arreta hobea emateko eta birgaitze-agentearen figura sustatzeko.**

2.4.1. ildo estrategikoa

Birgaitzea dinamizatzea, BHSen, etxebizitza-sozietate publikoen eta inplikaturako eragile guztien bidez.

2.4.1.1. ekintza Erakundeen arteko koordinazioa, birgaitzearen arloan herritarrei arreta emateko baliabideak indartzeko.

2.4.1.1.1.- Hitzarmenak eta/edo enkarguak BHSekin, mankomunitateekin eta udalekin, birgaitzearen arloan herritarrei arreta emateko dituzten baliabideak indartzeko.

BHSekin, mankomunitateekin eta udalekin hitzarmenak eta/edo enkarguak egitea proposatzen da, herritarrei laguntza-programei buruzko arreta eta aholkularitza emateko.

2.4.1.2. ekintza Koordinazio-jarduerak egitea finken administratzaileekin, elkargo profesionalekin, enpresa-elkarteekin, Visesa eta beste eragile batzuekin, birgaitze-prozesuak aktiboki sustatzen laguntzeko.

Birgaitze-prozesuak birgaitze-agenteen bidez aktibatzea proposatzen da, prozesu, programa eta laguntzen ezarpen integrala errazteko:


2.4.1.2.1.- Finken administratzaileekiko eta beste agente profesional batzuekiko lankidetzatza bultzatzea.. Finken administratzaileekiko eta beste lanbide-talde batzuekiko lankidetzari intentsitate handiagoz ekitea proposatzen da, jabeen komunitateekin zuzenean harremanean errehabilitazio-prozesuak bultzatzen ditzaizkeen prestakuntza-prozesuen bidez.

- 2.4.1.2.2.-Hedapen- eta komunikazio-tresnak garatzea: gidak eta bestelako dibulgazio-materialak egitea, birgaitze-araudi berriaren eduki eta alderdi nagusien komunikazioa errazteko.
- 2.4.1.2.3.-BEGekin eta etxebizitza-sozietate publikoekin, lankidetzeta-hitzarmenen eta/edo kudeaketa-enkarguen bidez, erakunde publiko horiek birgaitzeko diru-laguntzen kudeaketa-prozesuetan erakunde kolabratzaileen figura garatzea, eta birgaitze-bulegoen aldi bereko aitorpena egitea posible denean ere integratzea.

2.4.1.3. ekintza Birgaitzea indar handiagoz sustatuko duen zerga-sistema berri batek balioa eta enplegua sortzeko izan dezakeen potentziala aztertzea.

Planaren proiektu berritzaileetako bat honako hau da: gaur egun hiru foru-aldundietan indarrean dagoen zerga-pizgarrien sistema aztertzea eta nolako garapena izan dezakeen hausnartzea, birgaitzea sustatzeko estrategikoa izan daitekeen aldagai gisa, jabekideen erkidegoentzako azken kostua murriztuz. Gauzak horrela, honako hau proposatzen da:

- 2.4.1.3.1.- Euskadin, indarrean dagoen zerga-sistemaren ondorioz, birgaitzearen arloko zerga-gastua handitzea zailtzen duten aldagaiei buruzko diagnostiko bat egitea.
- 2.4.1.3.2.-Indarrean dagoen esparruak (epe laburreko egoerak) eta Italiako superbonusa bezalako ereduak garapenak (epe luzeko egoerak) balioa eta enplegua sortzeko eta EAEko BPGd-a handitzeko duen potentziala aztertzea.



Gobernantza sistemak eta **koordinazio** instituzionala

3.1.

Estrategia

Gobernantza-sistema eta jarraipena

3.2.

Estrategia

Babes publikoko bizileku-sistema garatzeko zerga- eta finantzaketa-politika

3.3.

Estrategia

Koordinazio-sistemak etxebizitza-politikan

› 3.1. estrategia **Gobernantza-sistema eta jarraipena**

3.1.1. ildo estrategikoa

Etxebizitza-politikako gobernantza- eta ebaluazio-sistemak.

3.1.1.1. ekintza **Etxebizitza-politikako gobernantza- eta ebaluazio-sistemak.**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetza, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren esparruan, lan aitzindaria egiten ari da duela zenbait urtetatik: Euskadiko etxebizitza-politikak sistematikoki ebaluatzen ari da. Epealdi berri horretan, jarduerak bere horretan jarraituko du, eta honako jarduketak hauek hartuko ditu barne:

- 3.1.1.1.1.- Etxebizitzaren Gida Planaren jarraipena eta ebaluazioa garatzea, tarteko ekitaldi bakoitzean etxebizitza-politikak ebaluatzeko txostenen bidez, eta 2024an Planaren azken ebaluazioa egitea.
- 3.1.1.1.2.- Birpopulazioari buruzko azterketa espezifikoak egitea. Azterketa horretan, plan honetako ekintzak ez ezik, Eusko Jaurlaritzak EBren estrategia berrien esparruan sustatutako beste plan eta itun batzuenak ere bildu beharko dira (plan horiek leheneratzeko, eraldatzeko eta konpontzeko planean (PRTR) zehaztuta daude).
- 3.1.1.1.3.- Beste diagnostiko eta ebaluazio-txosten batzuk egitea, EBn egindako politikak alderatzeko. Besteak beste, Europako etxebizitza-politikei eta -ereduei buruzko txostenak ere hartuko dira kontuan, datozen urteetarako funtsezkoak diren gaitan.

3.1.1.2. ekintza **Etxebizitzaren Euskal Behatokia indartzea.**

Etxebizitzaren Euskal Behatokia sendotzea planteatzen da, etapa berri bati aurre egiteko, giza baliabide eta baliabide ekonomiko gehiago jarritz, Euskadiko etxebizitza-politiken diagnostikoan eta ebaluazioan erreferente izaten jarrai dezan. Fundazio Publiko bat sortzea, Etxebizitzaren Euskal Behatokia izeneko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren egungo jarduera berezko eta independentea izan dadin.

3.1.1.3. ekintza **Parte-hartzea eta sareak.**

Plan honen ekintza-lerro baten bidez, Euskadiko eragile publiko eta pribatuekin koordinatuta eta partekatuta lan egiteko prozesu eta esku-hartzei ekiten, eta etxebizitza-politika egokiago diseinatzen lagundu nahi da. Jarduketak mota horien artean, honako hauek egingo dira:

- 3.1.1.3.1.- Etxebizitza-politikaren alderdiei buruzko lan-tailerrak.
- 3.1.1.3.2.- Interesgarrienak diren gaiei buruzko jardunaldi parte-hartzaileak.
- 3.1.1.3.3.- Europako sareekin lan partekatua sustatzea, hala nola Housing Europe, ENHR, OID, Etxebizitza Katedra eta beste sare interesgarri batzuk.

3.1.1.4. ekintza **Etxebizitza Foroa eta sektoreko lan-mahaiak.**

3.1.1.4.1.- Etxebizitza Foroa

Kontsultarako partaidetza-foro egonkor bat egituratzea ahalbidetuko duen lan-prozesu bat egingo da, etxebizitzaren sektoreko eragile publiko eta pribatu guztien arteko lankidetzaren bidez, etxebizitza-politikak hobeto diseinatzen eta gainerako politikekin –lurraldearen antolamendua, gizarte-arlokoak, ekonomikoak eta abar– koordinatzen laguntzeko. Foro hori topagune irekia izatea nahi da, diagnostikoak, estrategiak, planak eta abar bateratzeko.

Zehatzago esanda, Foro honek Plan honetako lan-prozesuak lagundu, aberastu eta ebaluatzeko lanari ekin behar dio, eta Etxebizitzaren 2021-2036 Itun Sozialaren oinarriak eta jarraipena eta ebaluazioa ezartzen lagundu behar du.

3.1.1.4.2.- Sektoreko lan-mahaiak

Foroarekin lotuta edo modu autonomoagoan, lan-prozesu bat ezartzea proposatzen da, eta, horretan, hiru lan-mahai tekniko gutxienez urtean behin bilduko lirateke. Hona hemen mahaiak:

- Birgaitzea sustatzeko mahaiak: estrategiak, planak eta jarduerak jakinarazten eta bateratzen laguntzeko, eta politika horren esparruei buruzko informazio-sistemak hobetzeko, Europako Funtsak atzemateko eta optimizatzeko interes bereziarekin.
- Alokairu merkea sustatzeko mahaiak: ahalegina egingo da informazioa trukatzeko eta funtsezko adierazleen esparru komun bat izateko, prestazioen eta laguntzen kudeaketa ahalik eta egokiena izan dadin, eta aldi horretan garrantzi berezia duten beste neurri batzuk har daitezten.
- Etxebizitza eta eraikuntza-sektorea sustatzeko mahaiak: etxebizitza babestua sustatzeko jarduerak zein enpleguaren kalitatea eta kualifikazioa bultzatzeko.

3.1.1.5. ekintza Etxebizitzaren aldeko 2036ko Gizarte Ituna.

Asmo handiko eta oso beharrezko helburu bat bultzatu nahi da, Euskadiko etxebizitza-politiken etorkizunerako, epe ertainean eta luzean.

Horretarako, etorkizunean konfiantza emango duen esparru bat sortzea proposatzen da, etxebizitza-politikaren aplikazioa bultzatu eta erraztuko duena, datozen 15 urteetarako adostutako akordioen espektrora zabalean oinarrituta. Itun honetan, inplikaturako eragile publiko, sozial eta pribatuak beren arlo eta eskumenei buruz adosteko gai diren etxebizitzaren arloko konpromisoak jaso behar dira, eta, hori guztia, epe luzean ikuspegiarekin.

› 3.2. estrategia

Babes publikoko bizileku-sistema garatzeko zerga- eta finantzaketa-politika

3.2.1. ildo estrategikoa

Zerga-arloko koordinazioa sustatzea, finantza-tresna berriak bultzatzea eta EBko funtsak erakartzea.

3.2.1.1. ekintza Finantzaketa-tresna berritzaileak: abalen eta berme publikoen sistema | 2021-2022-2023 aldia

Finantza-tresna berriak ezartzen jarraituko da, jabeekideen erkidegoentzako abalak dituzten finantza-lerroen bidez, birgaitze-jardueraren finantzaketa sustatzeko eta laguntzeko. Testuinguru horretan, kreditu-erakunde tradizionalekin, eta beste erakunde batzuekin, eta finantza-plataformekin, eta baita Finantzen Euskal Institutuarekin ere hitzarmenak egitea aztertuko da.

3.2.1.2. ekintza Zerga-politika: zerga-arloko koordinazioa | 2021-2022-2023 aldia

Datozen urteotan, etxebizitzari lotutako zerga-politikaren koordinazioa, oro har, eta birgaitze-politiken finantzaketa, bereziki, hobetzen jarraitzea proposatzen da. Ildo horretan, hau proposatzen da:

3.2.1.2.1.- Eusko Jaurlaritzak 2019an proposatutako zerga-erreformaren aplikazioa bultzatzea.

Proposamen honek Euskadin etxebizitzari aplikaturako zergak eta tasak eraberritzea proposatzen du. Zehatzago, etxebizitzarekin zerikusia duten eta PFEZn indarrean dauden kenkariei buruzko hausnarketa bat egitea proposatzen da, etxebizitza erosteko 36.000 euroko kreditu fiskal pertsonalaren egungo erregulazioaren egokitasunari dagokionez, bai zenbatekoari dagokionez, bai etxebizitzari berari dagokionez. Kasu honetan, beharrezkoa izango litzateke tratamendu iragankor bat ezartzea, aurreko ekitaldietan ohiko etxebizitza erostea erabaki zuten zergadunen egoera zaintzeko.

Eta, aldi berean, kolektibo eta egoera batzuk sustatzeko aukera aztertzea, hala nola, gazteak eta familia ugariak, errenta-maila jakin bateraino, edo birgaitzea. Etxebizitza alokatzeagatik kenkariari dagokionez, haren aplikazioa mugatzea planteatzen da, errenta-mailaren, zergadunen kolektibo jakin batzuetako kide izatearen (gazteak eta familia ugariak) edo etxebizitza alokatzeko edo erosteko eskubidea duten alokairuko programa publikoetako kide izatearen arabera. Kenkari hori alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren garapenera eta finkapenera egokitu beharko litzateke denboran zehar.

3.2.1.2.2.- Birgaitzearen arloan PFEZn dagoeneko indarrean dagoen kenkariaren erabilera optimizatzea eta erraztea.

PFEZn dagoeneko indarrean dagoen kenkaria optimizatzen jarraitzea proposatzen da, eta asmo handiagoko ereduak —hala nola Italiako superbonusaren antzekoak— garatu ote daitezkeen aztertzea. Kenkari horri —zerga-gastua— lotutako diru-bilketaren murrizketa potentziala Europako funts berrien bidez finantzatu ahal izango litzateke.

3.2.1.3. ekintza Next Generation Europako ezohiko funtsak erakartzea, kudeatzea eta gauzatzea.

Sareak sortzeko eta aliantzak ezartzeko prozesutik abiatuta, posizio estrategiko sendoagoa lortuko da etxebizitza-politiken finantzaketa handitzeko, bereziki Europako Funtsak birgaitzearen eta alokairu merkea sustatzearen arloetan bultzatutako politiken kasuan. Aurreikusten diren jarduketak honako hauek dira:

3.2.1.3.1.- Harmonikoki osatzea, pertsonentzat ahalik eta balio erantsi handiena lortze aldera, birgaitzeko euskal politika berri eta indartu berria, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak arautu berri duen energia-eraginkortasuneko birgaitze-planarekin, Next Generation funts europarren kargura.

3.2.1.3.2.- Lankidetzaren publiko-pribatua sustatzea alokairu merkearen sustapenaren esparruan, funts eta finantzaketa-iturri berriak kudeatzeko eta optimizatzeko.

> 3.3. estrategia

Koordinazio-sistemak etxebizitza-politikan

3.3.1. ildo estrategikoa

Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuko beste erakunde batzuekin koordinatzea hiri-berroneratzearen eta energia-efizientziaren arloetan.

3.3.1.1. ekintza Koordinazioa Eusko Jaurlaritzako beste erakunde batzuekin.

3.3.1.1.1.- Lurralde Plangintza eta Hiri Agendako Sailburuordetzak kudeatutako politiken eta programen koordinazioa indartzea, birgaitzearen kudeaketa integratua errazteko, eta Gida Plan honekin eta Bultzatu 2050 ekimenarekin lotutako programak bultzatzeko hiri-berroneratzearen arloan.

3.3.1.1.2.- Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia ezartzea, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) bidez.

3.3.1.1.3.- PREE Programarekin eta EEERekin koordinazioa indartuko da, energia-efizientziari lotutako laguntzen eta dirulaguntzen arloan.

3.3.1.1.4.- Finantzaketa-sistemen eta funtsak erakartzeko sistemen esparruan, Ekonomia eta Europako Funtsen Sailburuordetzarekin lan estua egitea proposatzen da.

3.3.1.1.5.- Plan honetan gazteen emantzipazioa lortzeko ekintzak eta, bereziki, Gaztelagun ekimena Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzaren estrategiekin bat etor daitezzen egingo da lan. Estrategia horietan gazteen emantzipaziorako euskal estrategia da aipagarria.

- 3.3.1.1.6.- Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzari dagokionez, koordinazio-lanek beren horretan jarraituko dute, etxegabetze judizialak saihesteko estrategien eta jarduketan kasuan, eta bereziki, etxegabetzeen aurkako protokoloen kasuan.
- 3.3.1.1.7.- Lan eta Enplegu Sailarekin eta Lanbiderekin lankidetzan proiektuak identifikatzen aurrera egingo da, interes bereziko bi eremutan. Hona hemen:
- EGPOaren etorkizuneko kudeaketa koordinatzea, prestazio horien onuradun diren biztanle-taldeei jarraipena egiteko eta laguntzeko mekanismoak eta tresnak indartze aldera.
 - Eraikuntzaren sektorean enpleguarekin lotutako proiektu bateratuak bilatzea: gaitasunak egiaztatuzko sistemak, prestakuntza dualeko programak eta abar.
- 3.3.1.1.8.- Programa multisektorialetan eta multilateraletan modu aktiboan parte hartzen jarraitzea. Programa horietan, etxebizitza funtsezko elementua da jarduera eraldatzailerako: gizarteratze-programak, hirugarren sektorearekin eta beste erakunde publiko batzuekin estaldura eta babes sozialeko sareak garatzeko programak, errefuxiatuentzat, etorkinentzat, bakarrik dauden adingabe eta gazteentzat, etxerik gabekoentzat eta une bakoitzean kaltebera diren gainerako kolektiboentzat.

3.3.1.2. ekintza **Koordinazio teknikoak garatzea Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin, Europako Funtsak optimizatzeko, eta finantza-tresna berrien eta Europako Funtsen jarraipenerako antena bat sortzeko.**

Etengabeko jarraipena egingo zaie Next Generation Europako finantzaketa-funts berriak eskuratzeko eta banatzeko funtsezkoa izango den Ministerio honek sustatzen dituen araudi- eta programa-berrikuntzei, Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 2. osagaiaren bidez.

Horretarako, Sailburuordetzak beharrezko kudeaketak egiten jarraituko du, Europako Funtsen finantziarioa eskuratu eta mantentzeko aldeko posizio estrategikoa izateko, eta finantzaketa-aukeren eta jardunbide egokien jarraipen-txostenen lerro berezi bat sortuko du, emaitzak aurkeztearekin eta Europako Funts berrien eragin sozial eta ekonomikoen ebaluazioarekin batera.

- 3.3.1.2.1.- Etengabeko harremana Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin, eta haren arau- eta programa-nobedadeen jarraipena.
- 3.3.1.2.2.- Europako funts berriek eta EBko finantza-tresna berriek sortzen dituzten aukerak hautemateko eta haien jarraipena egiteko antena.
- 3.3.1.2.3.- Europako funts berrien emaitzen eta eragin sozial eta ekonomikoen ebaluazioaren urteko tarteko aurkezpena, 2021-2023 eta amaiera ex post 2027.

4. HELBURU KUANTITATIBOAK ETA AURREKONTUA

4.1. Helburu kuantitatiboak

2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planak alokairu babestuko etxebizitzaren parkea 3.000 unitate baino gehiagotan handitzea planteatzen du indarrean dagoen bitartean, bai etxebizitza berriak sustatuz, bai bitartekaritza-programen bidez. Horrela, alokairuko parke publikoaren kuota parke babestu osoaren % 40 izango da, 2018-2020 aldirako Etxebizitzarako Programa amaitu zenean baino 6 puntu gehiago. Horri dagokionez, gogoratu behar da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak zuzenean sustatutako etxebizitza guztiak alokairu-erregimeneoak izango direla, eta jabetza-erregimenean sustatutako etxebizitza babestuak autofinantzatu egin beharko direla eta ez dutela baliabide publikorik kontsumituko.

Bigarren ardatzari dagokionez, batez ere Next Generation funtsei lotutako finantzaketa-aurkera berriei esker, birgaitze-programa publikoen helburuak indartu daitezke. Programa horien bolumena pixkanaka handitzen ari da, eta 71.280 etxebizitza birgaituko dira 2021-2023 aldian, aurreko 2018-2020 Planean (35.413 etxebizitza birgaitu) egindako gauzatze eraginkorren bikoitza gehixeago.

Jarraian, 2021-2023 EGPren helburu kuantitatiboak aurkezten dira, ardatzen, estrategien eta ildo estrategikoen arabera sailkatuta, jarraipena errazteko.

1. ARDATZA | ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATzea EUSKADIN

Estrategia 1.1. | Babes publikoko etxebizitzaren parkea handitzea, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu esklusiboa eginez.

Ido estrategikoa 1.1.1. | Babes publikoko etxebizitza-parkea areagotzea eta hobetzea, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzeko, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu esklusiboa eginez.

INDICADOR	2021	2022	2023	Guztira 21-23
▪ Alokairu babestuko parkeko etxebizitzaren kopurua	26.250	27.500	29.300	29.300
▪ Alokairuko parke publikoaren kuota parke babestu osoaren gainean (%)	%35	%37	%40	%40
▪ Abenduaren 31n errentamendu-kontratuen erregistroan aitortutako higiezinaren kopurua (lokalak barne)	130.000	145.000	155.000	155.000
▪ Sustapen berriko etxebizitzak alokairuan	900	1.450	1.650	4.000
▪ Zuzkidura-bizitokiak eta babes publikoko etxebizitzak	250	250	250	750
▪ VISESA babes publikoko etxebizitzak	500	500	500	1.500
▪ Zuzkidura-bizitokiak eta babes sozialeko etxebizitzak, tokiko erakundeek emandakoak eta errentamendua sustatzeko programak diruz lagundutakoak	0	100	100	200
▪ Ekimen pribatuak eta sozialak sustatutako etxebizitzak, alokairu babestu eta eskuragarriak, Sailaren errentamendua sustatzeko programak eta alokairu eskuragarriaren arau berriak diruz lagundutakoak.	150	500	600	1.250
▪ Babes publikoko edo libreko etxebizitzak cohousing eta Alokairu programa berrian	0	100	200	300
▪ Babes publikoko etxebizitzak, operadore pribatuak eta kooperatibek itunduak erostetan eta alokairuan erosteko aukerarekin	1.150	1.200	1.250	3.600
▪ Bizitegi-lurzoruak. Operadoreek lortutako lurzoruaren gainean eraiki daitezkeen babes publikoko etxebizitzaren kopurua.	1.000	1.100	1.200	3.300
▪ Sailak lortutako lurzoruaren gaineko babes publikoko etxebizitza eraikigarrien kopurua	800	800	800	2.400
▪ VISESAk lortutako lurzoruaren gaineko babes publikoko etxebizitza eraikigarrien kopurua	200	300	400	900
▪ Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadin diharduten kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren mekanismoaren bidez sistemari emandako finantzaketa (milioi eurotan)	30	70	100	200

Estrategia 1.2. | Etxebizitza eskuragarria bermatzera bideraturiko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea

Ido estrategikoa 1.2.1. | Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta etapa berria prestazioen kudeaketan

▪ Etxebizitza izateko eskubidea aitortuta duten etxeen unitateak (urteko metatua)	8.500	10.000	12.000	12.000
▪ Etxebizitzarako Prestazio Osagarria/Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten etxeen unitateak (ekitaldi bakoitzeko hileko batez bestekoa)	30.000	29.000	28.000	28.000

Ido estrategikoa 1.2.2. | Alokairu-erregimeneko gazteen emantzipazioa sustatzea.

▪ Gaztelagun Programaren onuradun diren gazteak	2.500	3.500	4.500	4.500
---	-------	-------	-------	-------

Ido estrategikoa 1.2.3. | Etxebizitza-premia berezia duten kolektiboari arreta emateko ekintzak (etxegabeteak, pobrezia energetikoa, etxerik gabeak...), Alokabideren ekintzak eta hirugarren sektorearekiko lankidetzat xertatuta.

▪ Hirugarren sektoreko erakundeek eta erakundeek gizarteratze-sarearako lagatutako etxebizitzaren kopurua. Metatua	150	175	200	200
▪ Housing First Programaren esparruan hirugarren sektoreko erakunde eta entitateek lagatutako etxebizitzaren kopurua. Metatua	25	50	75	75
▪ Kaleratzeen aurreko Bizitegi Programa Alternatiboaren esparruan egindako zuzeneko esleipenen kopurua. Urtero	40	50	60	150
▪ Genero-indarkeriaren aurkako Bizitegi Programa Alternatiboaren esparruan egindako zuzeneko esleipenen kopurua. Urtero	30	35	35	100

Estrategia 1.3. | Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea

Ido estrategikoa 1.3.1. | Jenderik gabeko etxebizitzak alokairu babestura bideratzea.

▪ Biziguneko alokairu babestuko parkea osatzen duten etxebizitzaren kopurua abenduaren 31n	7.500	8.000	8.500	8.500
▪ Biziguneko alokairu babestuko parkea osatzen duten etxebizitzaren kopurua abenduaren 31n	7.200	7.600	8.000	8.000
▪ ASAPen alokairu babestuko parkea osatzen duten etxebizitzaren kopurua abenduaren 31n	300	400	500	500

Ido estrategikoa 1.3.2. | Etxebizitza babestuen parkea kontrolatzea eta ikuskatzea

▪ Babestutako parke publikoko zenbat etxebizitza ikuskatu diren	9.500	9.750	9.750	29.000
---	-------	-------	-------	--------

2. ARDATZA | BIZITEGI-ERAIKINEN PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK

Estrategia 2.1. | Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea

Ildo estrategikoa 2.1.1. | Parke pribatuaren birgaitze- eta jasangarritasun-programak

INDICADOR	2021	2022	2023	Total 21-23
<ul style="list-style-type: none"> Parke pribatuaren birgaitze- eta jasangarritasun-programak Euskoregiteen erregistratutako EITen kopurua, abenduaren 31n metatuta 	50.000	55.000	62.000	62.000
<ul style="list-style-type: none"> Birgaitutako eraikinen kopurua (esku-hartzeak izan dituzten eraikinen kopurua) 	2.200	4.225	5.070	11.495
<ul style="list-style-type: none"> Birgaitutako etxebizitzaren kopurua (administrazio-ebazpenen kopurua) 	13.650	26.195	31.435	71.280
<ul style="list-style-type: none"> Birgaitzearen arloko proiektu integralak (energia-eraginkortasuna gehi beste esku-hartze batzuk) 	645	2.155	3.200	6.000
<ul style="list-style-type: none"> Hasitako jarduketak: hobetutako eraikinen kopurua 				
<ul style="list-style-type: none"> Birgaitzearen arloko proiektu integralak (eraginkortasun energetikoa gehi beste esku-hartze batzuk): hasitako jarduketak: emandako laguntzen eraginpean dauden etxebizitzaren kopurua 	4.000	12.600	19.200	35.800
<ul style="list-style-type: none"> Irisgarritasuna hobetu duten etxekoen unitateen kopurua (igogailuak, arrapalak, mugikortasuna instalatzea) 	4.000	5.100	5.900	15.000
<ul style="list-style-type: none"> Instalatutako igogailu kopurua 	600	820	980	2.400
<ul style="list-style-type: none"> Next Generation Europako funtsen kargura energia-eraginkortasunean birgaitutako etxebizitzaren kopurua (etxebizitza bakarren adierazlea) 	0	3.800	7.773	7.773
<ul style="list-style-type: none"> Birgaitze-prozesuen ondoren sortutako etxebizitzaren kopurua. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikatik (Edivi) ateratako adierazlea eta datua. 	1.000	1.000	1.000	3.000
Ildo estrategikoa 2.1.2. Etxebizitza-parke publikoaren mantenimendua eta kontserbazioa bultzatzea				
<ul style="list-style-type: none"> Zero Planean birgaitutako etxebizitza publikoaren kopurua 	100	100	100	300

Estrategia 2.2. | Eraikuntzan eta birgaitzearen kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea

Ildo estrategikoa 2.2.1 | Enpresa-ehuna eta balio erantsia sortzeko potentziala indartzea.

<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa-sistemak sustatzeko, iraunkortasuna sustatzeko, berrikuntzari eta hiri-habitatari laguntzeko ERAIKAL laguntza-programaren esparruan diruz lagundutako proiektuen kopurua 	50	70	80	200
--	----	----	----	-----

EJE 3 | GOBERNANTZA SISTEMAK eta KOORDINAZIO INSTITUCIONALA

Estrategia 3.1. | Gobernantza-sistema eta jarraipena

Ildo estrategikoa 3.1.1. | Etxebizitza-politikako gobernantza- eta ebaluazio-sistemak.

<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzaren politika publikoaren ebaluazioari buruzko txostenen kopurua 	4	5	6	15
--	---	---	---	----

4.2. Aurrekontu-magnitudeak

4.2.1. Aurrekontu-kostuak

2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren aurrekontu-kostua 1.237,6 milioi eurokoa da, eta Etxebizitza Sailburuordetzak 4312 etxebizitza-programaren bidez, eta Visesa eta Alokabide sozietate publikoek beren kapital-eta ustiapen-aurrekontuak gauzatu egikaritzen duten gastu kontsolidatua jasotzen du, behin lehenengo sozietateen arteko eta sozietate horien eta etxebizitza-programaren arteko gastu-harremanak ezabatu ondoren.

2021-2023an ekonomia errealean gauzatu beharreko gastu eta inbertsio efektiboaren zifra da, eta 119 milioi euroko (% 11) igoera dakar aurreko 2018-2020 aldirako Gida Planarekin alderatuta.

4312 etxebizitza-programaren gastu-aurrekontua, guztira, 1.088,5 milioi eurokoa da 2021-2023 aldirako.

Gainera, 2021aren aurreko ekitaldietan hartutako konpromisoengatikoko gastu finkoak kontuan hartzen badira, planifikatutako aldirako Etxebizitza Programaren guztizko aurrekontua 1.196,4 milioi eurokoa izango da.

VISESaren eta Alokabideren gastu-aurrekontua, 2021-2023 EGPren esparruan, 604,8 milioi eurokoa da.

Horrela, etxebizitza-taldearen administrazio-aurrekontua (finkatu gabeko etxebizitza-sailburuordetzaren eta haren sozietate publikoen gastuen aurrekontuaren batura) 1.801,2 milioi eurokoa da, eta Gida Planaren 2021-2023 aldirako aurrekontu kontsolidatua (etxebizitza-programaren aurrekontuaren eta sozietate publikoen arteko erlazioak ezabatuta), berriz, 1.237,6 milioi eurokoa, EPOari dagokion zenbatekoa barne, 24milioi eurokoa.

Azkenik, etxebizitzari lotutako zerga-kenkariak Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen organoarentzat gastu zuzena ez diren arren, etxebizitza-politiketan esku hartzeko ildo garrantzitsua dira, eta, gainera, etxebizitzarako zerga-sarrerak nabarmen murriztea ez ezik, gastu finkatua baino gehiago ere badakarte, foru-aldundiek fiskalitatearen bidez egiten dituzten etxebizitza-politikako apustu gehigarriak ere badira. Berrikuntza aipagarri gisa, 2021-2023 aldirako etxebizitzari lotutako gastu fiskala 1.263,6 milioi eurokoa izango dela zenbatetsi da. Lehen aldiz, aurrekontu-gastu zuzenaren oso antzeko zifretan mugitu da, eta hautsi egin da euskal gastu fiskalak etxebizitzako zuzeneko gastua baino askoz gehiago gainditu duen joera historikoa.

Etxebizitzaren Gida Planaren aurrekontu-kostuak 2021-2023 (milioi euro)

2021-2023 EGP kostuak, guztira	1.088,5
- 2021a baino lehenagoko konpromisoengatikoko gastu finkoak	108,0
- Etxebizitza-programako gastuen aurrekontua, guztira	1.196,4
- Visesa eta Alokabideren gastuak, guztira	604,8
- Etxebizitza taldearen gastuen aurrekontu administratiboa, guztira	1.801,2
- Gastuen aurrekontu bateratua, BPE-EPOrik gabe	990,6
- EPE-EPO zenbatekoa	247,0
- Aurrekontu bateratua, guztira	1.237,6
- Etxebizitzaren gastu fiskala	1.263,6

2021-2023 EGren aurrekontu-kostuak

ETXEBIZITZA-PROGRAMAKO GASTUAK						
KONTZEPTUA	2021	2022	2023	Guztira 2021/2023	Gainerakoa 2047 arte	GUZTIRA
LURZORUA ETA URBANIZAZIOA	5.132.951	9.478.000	12.000.000	26.610.951	14.000.000	40.610.951
- Lurzoria lortzea	2.555.000	5.578.000	8.000.000	16.133.000	8.000.000	24.133.000
- Urbanizazioa	2.577.951	3.900.000	4.000.000	10.477.951	6.000.000	16.477.951
Eraikuntza	3.000.000	10.750.000	18.275.000	32.025.000	36.023.250	68.048.250
Etxebizitzak erostea	3.892.500	31.005.000	5.930.000	40.827.500	2.100.000	42.927.500
TALDEKO ENPRESEN KAPITAL- TRANSFERENTZIAK	31.946.133	45.022.070	34.000.000	110.968.203	128.800.000	239.768.203
- VISESA programa-kontratua	425.000	9.687.000	10.000.000	20.112.000	42.000.000	62.112.000
- Lurzoria erostea	2.118.516	2.843.500		4.962.016		4.962.016
- ALOKABIDE etxebizitza erosteko eragiketengatik	29.402.617	32.491.570	24.000.000	85.894.188	86.800.000	172.694.188
ETXEBIZITZA ETA LURZORUA DIRUZ LAGUNTZEKO POLITTIKAK	130.997.274	202.640.678	221.007.582	554.645.534	114.164.000	668.809.534
- Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa EPE eta EPO*	78.000.000	85.000.000	84.000.000	247.000.000	0	247.000.000
- Lurzoria lortzea eta urbanizazioa	50.000	50.000	50.000	150.000	0	150.000
- Alokairua sustatzea	3.700.000	9.200.000	19.700.000	32.600.000	26.500.000	59.100.000
- Alokairu-sorospen sustapena	150.000	1.223.000	2.313.000	3.686.000	27.464.000	31.150.000
- Landa-eremuko etxebizitza erabiliak	200.000	200.000	200.000	600.000	0	600.000
- Itunpeko sustapenak	300.000			300.000	0	300.000
- Etxebizitza hutsak mobilizatzea. Bizigune	33.127.274	34.967.678	36.808.082	104.903.034	0	104.903.034
- Alokairurako bitartekaritza- programa	100.000,00	130.000	166.500	396.500	0	396.500
- Eraikuntzako errehabilitazioa	7.370.000	21.370.000	21.370.000	50.110.000	14.000.000	64.110.000
- Etxebizitzak modu eraginkorrean birgaitzeko diru- laguntzak	5.500.000,00	7.500.000	10.400.000	23.400.000	12.300.000	35.700.000
- Etxebizitzak modu eraginkorrean birgaitzeko diru- laguntzak NEXT generation funtsak		37.500.000	37.500.000	75.000.000	21.900.000	96.900.000
- GAZTELAGUN programa	2.500.000,00	5.500.000	8.500.000	16.500.000	12.000.000	28.500.000
BESTE DIRU-LAGUNTZA POLITIKA BATZUK	2.050.000	2.660.000	3.145.000	7.855.000	1.560.000	9.415.000
- Eraikal	100.000	560.000	1.045.000	1.705.000	1.560.000	3.265.000
- Etxebizitza, eraikuntza eta arkitektura arloko berrikuntzarako diru-laguntzak	1.950.000	2.100.000	2.100.000	6.150.000	1.560.000	7.710.000
Langile eta funtzionamendu gastuak	20.541.000	20.616.410	20.656.074	61.813.484	0	61.813.484
- Beste gastu batzuk	1.060.000					
2021/2023 GIDA PLANAREN KONTUAK GUZTIRA	198.619.858	291.167.158	309.083.656	793.918.173	294.547.250	1.088.465.423
Aurreko konpromisoengatiko gastu finkoak 2021	48.041.036	28.815.654	12.088.104	88.944.794	19.005.882	107.950.676
ETXEBIZITZA-PROGRAMAKO GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	246.660.894	319.982.813	321.171.760	882.862.967	313.553.132	1.196.416.099

VISESA ETA ALOKABIDE GASTUAK						
- Lurrak eta orubeak	20.692.101	20.899.022	21.317.002	62.908.125		62.908.125
- Etxebizitzak eraikitzea	38.791.447	39.761.233	41.749.295	120.301.975		120.301.975
- Alokairu sozialerako etxebizitzaren erosketak	18.500.000	19.100.000	24.000.000	61.600.000	86.800.000	148.400.000
- Gainerako inbertsioak	480.397	432.357	408.337	1.321.092		1.321.092
Inbertsio errealak, guztira	78.463.945	80.192.612	87.474.635	246.131.192		332.931.192
- Finantza-inbertsioak eta L/Prako kredituen amortizazioa	36.857.896	37.779.343	38.723.827	113.361.066		113.361.066
- Bizigune programa	33.887.274	37.276.001	42.359.093	113.522.368		113.522.368
- Tanteoa eta atzerapena				0		0
Kapital transferentziak eta diru- laguntzak	70.745.170	75.055.345	81.082.919,5	226.883.434		226.883.434
- Langile eta funtzionamendu gastuak	41.331.230	41.951.198	42.580.466	125.862.895		125.862.895
- Finantza-gastuak	2.064.385	1.961.166	1.857.947	5.883.497		5.883.497
Gastu arrunta, guztira	43.395.615	43.912.364	44.438.413	131.746.392		131.746.392
VISESA ETA ALOKABIDE GASTUAREN AURREKONTUA 2021- 2023	192.604.730	199.160.321	212.995.967	604.761.019		604.761.019
Etxebizitza taldeko gastuen aurrekontu administratiboa, guztira	439.265.624	519.143.134	534.167.727	1.487.623.986	313.553.132	1.801.177.117
PEV eta EPO gabeko etxebizitza-taldeko gastuen aurrekontu bateratua guztira, finkatze-doikuntzen ondoren	266.252.414	349.701.593	374.695.862	990.649.869		
EPO/EPEren zenbatekoa	78.000.000	85.000.000	84.000.000	247.000.000		
AURREKONTU BATERATUA, GUZTIRA	344.252.414	434.701.593	458.695.862	1.237.649.869		
Etxebizitza gastu fiskala	410.839	421.110	431.638	1.263.587		

4.2.2. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021-2024 eperako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa sei ardatz estrategikotan egituratzen da, eta horien artean bat puntuala da, Covid 19ren pandemiak etxebizitzaren alokairuaren ordainketan eragin ahal izan dituen zailtasunak modu espezifikoan arintzera bideratua:

1. Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak lortzea, inor eta tokirik atzean gera ez dadin.
2. Alokairu eskuragarria sustatzea
3. Lehendik dauden bizitegi-eraikinen parkea balorizatzea
4. Etxebizitzaren kalitatea, berrikuntza eta iraunkortasuna sustatzea
5. Covid-19aren aurkako neurriak
6. Mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatzea

Bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ardatzen Etxebizitza Sailaren diru-laguntzen politikaren helburu estrategikoak identifikatzen dituzte. Diru-laguntzen lerroek 560,4 milioi euroko zuzkidura ekonomikoa dute guztira 2021-2024 aldirako (392,8 milioi euro Gida Planaren indarraldiko hiru urteetan). Taula honetan zehazten dira.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2021-2024. 2, 3, 4 eta 5 ardatz estrategikoak.

ARDATZ. Alokairu eskuragarria sustatzea						
Helburu estrategikoa	Diru-laguntzen ildoa	2021	2022	2023	2024	GUZTIRA
Etxebizitzarako eskubide subjektiboak bermatzea	Alokairu libre ordaintzeko prestazioak, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren osagarri gisa (EPE + EPO 2022tik aurrera)	5.000.000	85.000.000	84.000.000	83.000.000	257.000.000
Eskaintza soziala eta eskuragarria sustatzea	Alokairu babestuan lagatzeko etxebizitzak sustatzeko eta/edo erosteko laguntzak (Alokairu programa berria barne)	4.000.000	5.000.000	5.000.000	6.000.000	20.000.000
Zuzkidura-bizitokiaren eskaintza sustatzea	Zuzkidura-bizitokiak sustatzeko laguntzak	3.000.000	3.000.000	4.000.000	4.000.000	14.000.000
Alokairu eskuragarriaren eskaintza sustatzea despopulazioak eragindako eremuetan	Landa-inguruneetan alokairu babestua sustatzeko eta despopulazioaren aurka egiteko laguntzak	2.000.000	2.000.000	2.000.000	2.000.000	8.000.000
Erabilera-lagapeneko etxebizitzaren eskaintza sustatzea	Cohousingerako edo etxebizitza kolaboratiboetarako laguntzak	4.000.000	4.000.000	5.000.000	5.000.000	18.000.000
Alokairuaren eskaintza arazoizko prezioetan sustatzea	Alokairu eskuragarriarako laguntzak	4.000.000	4.000.000	5.000.000	5.000.000	18.000.000
Gazteen emantzipazioa erraztea	Gaztelagun programa	9.500.000	11.500.000	13.500.000	15.500.000	50.000.000
Udalaren lurzoru-ondareak eratztea	Edozein administrazio publikoren mendeko lurzoru-ondareak eratzeko lurzoru erosi eta urbanizatzeko eragiketarako laguntzak	50.000	50.000	50.000	50.000	200.000
ARDATZ. Lehendik dauden bizitegi-eraikinen parkea balorizatzea						
Birgaitze Politika integrala, eraginkorra eta iraunkorra	Medidas financieras para obras particulares	2.000.000	2.000.000	3.000.000	3.000.000	10.000.000
	Medidas financieras para obras comunitarias	18.000.000	20.000.000	22.000.000	22.000.000	82.000.000
	Medidas financieras para obras comunitarias de rehabilitación integral y eficiente	11.000.000	13.000.000	15.000.000	15.000.000	54.000.000
Irisgarritasuna erraztea	Medidas financieras para planes y obras de accesibilidad en espacios públicos	5.000.000	5.000.000	5.000.000	5.000.000	20.000.000
ARDATZ. Etxebizitzaren kalitatea, berrikuntza eta iraunkortasuna sustatzea						
Arkitekturan eta eraikuntzan kalitatea eta berrikuntza sustatzea	Programa de ayudas Eraikal	1.000.000	1.000.000	1.250.000	1.250.000	4.500.000
	Subvenciones nominativas para la mejora de la calidad, fomento de la innovación en la edificación y la arquitectura	950.000	850.000	850.000	850.000	3.500.000
	Ayudas a la promoción del diseño urbanístico y la arquitectura contemporánea		250.000		250.000	500.000
ARDATZ. COVID-19aren aurkako neurriak						
Etxebizitzaren alokairu librearen ordainketa erraztea	Ayudas alquiler libre Covid-19	1.000.000				1.000.000
GUZTIRA		70.500.000	156.650.000	165.650.000	167.900.000	560.700.000